

1. UNITATE DIDAKTIKOA MARKO PEDAGOGIKOA

ATSEDENALDIA JOSTALDI INKLUSIBORAKO HEZKUNTZA.

NIREGATIK ETA NIRE LAGUN GUZTIENGATIK

DBH, BATXILERGOA ETA LH kategorია

AURKIBIDEA

1. SARRERA.
2. ATSEDENALDIAREN ERABILERA PEDAGOGIKOA.
 - 2.1. ATSEDENALDIA ESPAZIO FISIKO GISA
 - 2.2. ATSEDENALDIA GIZARTE-ESPAZIO GISA
3. ONDORIO MODURA

1. SARRERA

Atsedenaldia ikaskuntza-inguru gisa identifikatzea, gizarte inklusiboak sortzeko baliabide gisa, hezkuntza-inklusioko aukera gisa, errealitate gero eta normalagoa da ikastetxeetan eta eskola guztietan lortu beharreko helburua, etapa hauetako ikasleak bertan gutxi jostatzen diren arren.

Gaur egun atsedenaldiri bi ikuspegi osagarritatik begiratzen zaio. halabeharrez bat egin behar dutenak, atsedenaldia espazio fisiko gisa eta atsedenaldia espazio sozial gisa.

Lehena arkitekturaz ari zaigu, baliabide materialez, gune ludikoez edo jolasgunez; bigarrena, aldiz, pertsonen arteko harremanetan zentratzen da, ikasle guztien presentzian eta parte-hartzean, bizikidetzan eta giza harreman guztien azpian dagoen errespetuan. Ikaskuntza informalak dira, egunerokotasunean gehitu eta erantsi beharrekoak, ikastetxeetako hezkuntza-proiektuetan, hezkuntza inklusiboa bermatzen dutelako, parekoa eta kalitatezkoa ikasle guztientzat, gizarte inklusiboagoak sortzen lagunduz gainera, bazterketa hezkuntzatik aldentuz. Etapa hauetan, gainera, herritartasun jasangarria garatzeko ekarpena egin dezake, erkidegoarekiko loturak ahalbidetzen dituzten boluntarioritza-funtzio eta guzti, gaitasunak garatu, ikasi, aldaketaren eragile bilakatu, natura babestu eta, batez ere, pertsona guztien bizi-kalitatea hobetu.

Hezkuntza inklusiboaz hitz egitea parte-hartzeaz hitz egitea da, inguru formaletan zein informaletan, hezkuntzaren ikuspegi humanistaz hitz egitea da, , gizarte-justiziaren balioak, giza eskubideak eta jasangarritasunaren ikuspuntuaz hitz egitea da. Hezkuntza inklusiboaz hitz egitea hezkuntzaren ikuspegi berri batez hitz egitea da, bizitzak aldatzeko modua ematen duena, hezkuntzaren bitartez, curriculumaz kanpoko elementuak aintzat hartuta, ongizate emozionalaren garapena bultzatuz, baita ongizate fisikoarena ere, pertsonen arteko harremanei, auto-erregulazioari eta gizarte inklusioari dagokionean. Hezkuntza inklusiboaz hitz egitea, atsedenaldira, alderdi horiek guztiak garatzeko aukerak eskaintzeaz hitz egitea da, begirada, beti, pertsonarengan jarriz eta bere bizi-kalitatea hobetuz, bai bertan

burutuko diren jarduera ludikoetan parte hartuz, baita boluntarioritza-ekintzak proposatuz ere, aurrerago aipatu dugun moduan.

Ikastetxeko instalazioak, haur-hezkuntzako bigarren zikloko, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetarako, araututa daude; hortaz, "jolastoki bat egotea ezartzen da, parte batean estalia, polikiroldegiko pista gisa erabilia izateko modua emanez, ikasle-kopururako egokia den neurrikoa, inola ere ez 900 metro koadro baino gutxiagokoa eta erabiltzeko ordutegi desberdinarekin beste hezkuntza-etapa batzuetako ikasleek ere erabiltzen badute¹," autonomia-erkidego bakoitzak atsedenaldiaren iraupena arautzen du. Hortaz, derrigorrezko hezkuntzarako instalazioak araututa daude, ez dago, ordea, unitate didaktiko hauen hartzaile diren gainerako etapetarako araudirik, Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako, hain zuzen ere. Horregatik, derrigorrezkoaren osteko hezkuntza hori besterik eskaintzen ez duten ikastetxeak daude, espazio hori ez daukatenak. Kasu honetan, mugapen hori duten ikasleentzako erronka, Unitate honetan, pertsonaren garapen integrala da, Ikaskuntza Sozialeko proposamenen bitartez, funsean, konpromiso-osagaia gehituz trebetasunen, gaitasunen eta ezagutzen garapenari.

Zenbait erkidegok beren Haur Hezkuntzako curriculumean orientabideak atsedenaldiaren balioari buruzko metodologikoak garatzen dituzte, baina ez dute gainerako etapetarako egiten eta atsedenaldia ikaskuntzarako toki informal gisa hartu beharra dago, Dellors-en hitzak gogora ekarriz, izaten eta elkarrekin bizitzen ikasteko. Agian jolasa ez dago oso presente adin hauetan, baina bi zutarri horiek islatzen dituzten hezkuntzaren egiteko sozibilizatzaileak, eta Bigarren hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Batxilergoko etapetan, bete-betean garatu behar dira, **atsedenaldiak osatzen duen espazio fisiko eta sozialetik** sortzen diren proposamen eta dinamiken bitartez.

Izaten ikastea, bere nortasun propioa garatzen, autonomoa izaten ikastea, auto-erregulatzen, jokabide auto-determinatua lortzen, hori ere ikas daiteke testuinguru ez-formaletan eta ludikoetan; horietatik gizarte honetan bizitzeko trebetasunak lor daitezke, konplexua eta zalantza betea, gaur egungo gizartea den modura. Gaitasun horien inguruan, UNESCOk 2 (2012) dio gaitasun transferigarriak direla, bigunak edo ez-kognitiboak eta curriculumari ez dagozkion gaitasunak dira, komunikazioa, lidergoa edo ekintzailetasunaren moduko alderdiekin. Gaitasun horiek, trebetasun sozialei lotuta, enpatizatze gaitasuna areagotzen dute, soluzioak aurkitzeko, loturak ezartzeko eta elkarlanean aritzeko.

Bizi garen eta gure ikasleak ere bizi diren gizarte globalizatu, aldakor honetan, hezkuntzaren planteamendu holistikoa garrantzitsua da testuinguru desberdinetara egokitzeko, eta aldizka, beharra ere bada. Elkarrekin bizitzen ikastea giza-harremanez eta interakzioez harago doa eta harreman horiek

¹ 132/2010 Errege Dekretua, otsailak 12koa, haur-hezkuntzako bigarren zikloko, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek izan behar dituzten gutxieneko betekizunei buruzkoa.


² UNESCO. 2012. *Gazteria eta trebetasunak: Hezkuntza lanean jartzea*. EPTaren munduko jarraipen-txostena 2012. Paris, UNESCO.

ingurumenera ere zabaldu egiten dira; hortaz, jasangarritasunak toki garrantzitsua hartuko du printzipioen indartzean eta adin hauetan garatu beharreko balio etikoetan.

2. ATSEDENALDIAREN ERABILERA PEDAGOGIKOA.

Jolastokiak espazio fisiko garrantzitsua dira ikastetxean, non nerabeak eta gazteak dagoeneko jolasten ez diren. Nola da posible, orduan, espazio horrek eskaintzen dituen abantailak aprobetxatzea adin jakin batzuetan erabili ohi ez bada? Nola da posible dinamikak lantzea existitzen ez den espazio batean? Nola da posible jolastokia haurrentzako toki gisa jotzen duten eta bere gazteak "kutsatzea" gaur egun bere errealitatea osatzen ez badu? Espazio horietan esku-hartzeko aukera izatea da kontua, proposamen propioekin eta eurek eginak, dinamizazioa edota eraldaketa helburu izanik, proposamen horiek koordinatu eta zuzendu ahal izan ditzatela, gizarte-konpromisozko jarduerak sustatu ditzatela, edo besterik gabe inguru harmera eta seguruz goza dezatela, atsedean hartzeko, aisiarako eta elkarbizitzarako.

Edonola ere, espazio horiek adin horietan erabiltzeko espazio diafanoa izatetik, harbera ez den espazioa izatetik, herritartasunaren kontzeptu berri bat sustatuko duen tokia izatera igaro behar du, **herritartasun arduratsua eta solidarioa**, inguru-alfabetizazio jasangarrian oinarritua, inor atzean uzten ez duena, aniztasuna baloratu eta ospatzen duen espazioa, egiten diren proposamen guztiei itxura ematen diena, espazio hori eraldatzeko, helburu horretarantz zuzendu behar dira.



2.1. ATSEDENALDIA ESPAZIO FISIKO GISA

Jolastokien diseinuan polikiroldegiko pista bat dago eta haren inguruan jarduera guztiak garatzen dira, normalean espaziorik handiena baloi-jolasetarako zuzenduz, futbola ia beti, eta toki gutxi uzten da bestelako jolasetarako edo bestelako jarduerak egiteko. Gainera, gutxitan egoten dira elementu fisikoak, ping-pong mahaiak adibidez, iturriak, bankuak edo berdeguneak; hortaz, espazio horien eraldaketari ekin baino lehen, interesgarria litzateke alderdi arkitektoniko horiei buruz hausnartzea, ikasleek espazio ludiko horietan dituzten jokabideak baldintzatzen dituztenez.

Atsedenaldiri espazio fisiko gisa ematen zaion erabilerak berekin dakar ikasle jakin batzuen protagonismoa, beste batzuen bazterketaren aldean. Generoa, desgaitasuna, aniztasun kulturala... alboratuta suerta daitezke aisialdian, une hori modu isolatuan paseatzen emanez gero, bakarrik, edo txoko batean egonda, beraz garrantzitsua da bere erabileraz hausnartzea beharrezko errealitatea da, eta ñaster aurre egin beharrekoa. Atsedenaldia, egunero, bullying-erako tartea izan ohi da, bazterketarako, bakardaderako eta gatazkarako, nerabe eta gazteen artean.

Jolastokiek espazio edo txoko desberdinak izan ditzakete, bere interes, asmo eta motibazioetatik propioetatik abiatuta. Euren eta eurentzat pentsatutako txokoak edo espazioak, jarduera konpartituak gune seguruetan egin ahal izateko.

Inklusioari lotuta eta haren eskutik, **irisgarritasuna** dago, edo inguruek bete behar dituzten baldintzak pertsona guztiek ulertu eta erabili ahal izan ditzaten. Irisgarritasunak aukera-berdintasuna laguntzen du eta oztupoak ezabatetik harago doa, izan ere inguru eta espazio irisgarriak sortzean, ikasle guztiek erabili eta gozatzeko, modu proaktiboan segregazioa eta bazterketa saihesten ari baikara, heziketatik eta heziketan, aisialdian eta aisia eta dibertimenduko une berean.

Aomtzat hartu beharreko helburuetako bat da, atsedenaldia eraldatzeko, eta irisgarritasun fisiko eta kognitiboarekin loturko alderdiak aintzat hartuko ditu eta ikastetxeetan eta atsedenaldirian bereziki benetako inguru irisgarriak sortuz eta diseinatuz, ikasle guztientzat.

Ez da ordea atsedenaldiria diseinatzeko eta berregituratzeko aintzat hartu beharreko alderdi bakarra, garapen jasangarriko hezkuntzak ahalduzko-ekimenak sustatzen ditu, gaitasunena, ezagutza, jarrerena eta balioena, bizitza eta etorkizuna hobetzea ahalbidetzen dutenak. Modu horretan ingurumen-heziketa indartzen da, banakakoaren konpromisoa eskatzen duena mundu bidezkoagoa lortzeko, baina baita herritartasun kritiko, arduratsu eta konpromisoduna garatzeko ere.

Atsedenaldiria jasangarria lortzeko proposamenak, alderdi horrek ezarriko ditu eta berdeguneak izan beharko ditu, eskolako baratzak, ur-iturriak, birziklatutako jolasak kanpoalderako, edo bankuak atsedena hartzeko, hitz egiteko.

2.2. ATSEDENALDIRIA GIZARTE-ESPazio GISA

Atsedenaldiria espazio sozial gisa, elkarlanaren balioak lortzean jartzen du enfasia, gizarte-interakzioak sustatuz. Hezkuntza inklusiboak denentzako hezkuntza baten alde egiten du eta hezkuntzaren planteamendu holistikoa oinarritzen da, alderdi kognitiboak barne hartuz. Atsedenaldiria toki ezin hobea da alderdi horien garapenera ekarpenak egiteko, horretarako proposamen zehatzekin, jolasaren bitartez sustatu daitezkeenak.

Normalean bigarren hezkuntzan atsedenaldiria gizarte-harremanetarako tokia da, pertenezko-taldearekiko. Adin horietan inguru sozialak garrantzi handia du bere garapen ebolutiboan eta orduan eredu helduekiko urruntzea agertu ohi da. Normala da parekoen taldeak aurkitzea, espazio hori hitz egiteko baliatzen dutenak et, lurrian eserita edo horma batean interesak konpartitzen dituztenak, talde

itxiak dira, oso gutxian euren arteko elkarrekintzak izaten dituztenak, espazio horietan zenbait kolektiboren segregazioa eta bazterketa sortuz.

Hemen helburua gure ikastetxeetako ikaslerik helduenek elkarlaneko jolasak sustatzea da, txikienean artean, euren arteko topaketa eta parte-hartzea sustatuz, pertsona guztien artean.

Jasamgarrotasuna, bakea, bizikidetzatza, elkarrekiko errespetua, elkarriketa, gizarte-justizia, zainketa, errespetua eta tolerantzia jolasetik landu daitezkeen balioak dira. Atsedenaldirak, gizarte-esparru gisa, bere dinamizazioa sustatzen du interakzio pertsonalak bultzatzeko, balio horiek eta beste batzuk indartzen dituztenak.

Proposamen honetan kirol inklusiboak edo elkarlana eskatzen duten jolasak proposatzen dira, eskolan aurreko balioak sustatzeko.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat, atsedenaldirak helarazteko, parte hartzea da. Hezkuntza inklusiboak **ikasle guztien parte hartzea** sustatzen du, ikastetxean egiten diren jarduerak guztietan, , curriculumekoak izan ala ez. Parte hartzea, beraz, gakoetako bat da atsedenaldirak inklusiboak lortzeko, bazterketa desagerrarazteko, poza, talde-lana, autonomia eta elkartasunaren moduko balioak sustatuz.

Alderdi hau garatzeko beharrezkoa da ikasle guztien parte hartzea dinamizatuko duten proposamenak sustatzea. Proposamenetako bat Gorputz Heziketako Sailerik bultzatzea izango da, geletan landutako edukiak atsedenaldirak ere erabili ahal izan daitezen, hautabide ludiko gisa.

Atsedenaldirak **jolas tradizionalak** erreskatatzeko une egokia ere izan daiteke eta **beste herrialde batzuetako jolasak** ezagutzeko, ikastetxeko kultura bakoitzeko alderdiak balioetsiz. Jolasak berreskuratzea eta atsedenaldirak dinamiketan txertatzeak berekin dakar, jolasteko bestelako moduetara sartzeari gain, pentsatzeko eta aritzeko beste modu batera ere, oztopoak ezabatzeko aukera ematen du eta ikastetxeko beste kultura batzuk gerturatzen ditu, kultura artekotasuna, elkarlana eta elkarbizitza landuz.

Jolas-proposamen horiek zuzenduak izan daitezke, ala ez. Aurreko kasuan bezala, Gorputz Heziketako alorrean irakatsi daitezke eta atsedenaldirak jolastu, edo kultura arteko proiektu batetik sor daitezke, gelan landuta.

Atsedenaldirak gizarte-esparru gisa ulertuz, ikastetxean ikaslerik helduenek Jolasaren Museoa egin dezakete, txikienek egin eta gauzatua, saio guztietan ikasiko jolas guztiekin edo proiektua burutzeko egindako ikerketaren emaitza.

3. ONDORIO MODURA

"Niregatik eta nire lagun guztiengatik" aurten ONCEren lehiaketan aukeratutako leloa da, ikastetxeetan hezkuntza inklusibo sustatzeko eta bermatzeko, hezkuntza parekidea eta kalitatezkoa, espazio ludiko batetik pertsonaren garapenerako ezinbestekoak diren alderdiak landuz, , esate baterako parte-hartzea, ikaskuntza soziala, jasangarritasuna, elkarlana, auto determinazioa, elkarbizitza, elkarrekiko laguntza eta sostengua.

Jakin badakigu zein zaila den gai hau gelan goiko mailetako ikasleekin lantzeko, askotan baimena izaten baitute ikastetxeetatik ateratzeko eta beste batzuetan ez dute olgetarako toki fisikorik, ikastetxean bertan, eta beraz, atera behar dira. Guretzat erronka da, beraz, ikastetxean egin daitezkeen proposamenak sortzea, jarraitzen dugun helburuari eutsita, eta espero dugu zuen erronka izatea praktikara eraman ahal izatea, jakinik ere, horrela, denek ekarpena egingo dugula gizarte inklusiboago baten alde eta mundu humanistagoa lortzeko.